

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

B eta D ereduaren igoera handia azken hamar urteotan

A eta X irakaskuntza ereduak (A ereduaren dena gaztelaniaz irakasten da eta euskara asignatura da; X ereduak, dena gaztelania hutsez eta desagertzeaz dagoena) sekulako behar-kada egin dute azken hamar urteotan EAEko Eskolaurtean eta Oinarrizko Heziketa Orokorrean. Matrikula guztien %75a izatetik %44a izateraino.

B ereduak (irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaraz irakasten dituenak) izan da gehien igo dena, %10etik %28ra.

D ereduak (dena euskaraz eta gaztelania ikasgaia) ere 13 puntu-ko igoera izan du,

%15etik %28rainokoa. Azken ikasturtean matrikulen %56a B eta D ereduetan egin dira.

Joera hau berbera dugu hiru lurraldeetan. Abiaturua, da aldatzen dena, hau da, herrialde bakoitzak orain hamar urte zeukan egoera. Gipuzkoan, adibidez, ikastola gehiago zegoen. Horregatik A ereduak ia galtzeko zorian dago eta D ereduak B ereduaren gainera ere nagusitzeko bidean da. Bizkaian hiru ereduak nahikoa orekatuta daude, D ereduak 13 ereduaren gainera, baina A oraindik garrantzitsua dela. Araban B ereduak sendotzen ari da, A ereduak oso zabaldua dago eta D ereduak pisu txikiagoa du.



Aurrekontuak euskaraz ere bai


Euskadiko Auzitegi Nagusiak horrela erabakita, Lasarte-Oriako Udalak euskaratu egin beharko ditu 1992ko aurrekontuak. Izan ere, aurrekontuok aurkeztu zirenean gaztelania hutsez zeuden idatzita.

Lasarte-Oriako Herri Batasunak aurrekontuak euskaraz ere idaztea eskatu zion udalari. Haren ezetzaren aurrean, HBk auzitara eraman zuen eskaria.

Iazko urriaren 27an Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion HBri eta hilabeteko epea eman zion Lasarte-Oriako Udalari aurrekontuak euskaratzeko. Lasarte-Oriako Udalak, ordea, errekurtsioa jarri zuen Euskadiko Auzitegi Nagusiaren erabakiaren aurka.

Orain epaileek atzera bota dute errekurtsioa eta arrazoia eman diote berriro HBri. Iazko aurrekontuak, beraz, euskaraz ere idatzi beharko dira.

IRAKASKUNTZA EREDUEN BILAKAERA EA ETA OHO-n



(1) Iturria: EUSTAT

(2) Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Saila

Odile Kruzeta, informazioa eta irratia

Euskadi Irratiko albistegietako zuzendaria Eibarren jaio zen. orain 35 urte. Solfeoa eta Pianoa ikasi eta Izukaitz taldean abestu zuen. Nafarroako Unibertsitatearen Fakultatean Fisika ikasketetan lizentziatu zen. Hamalau urte zituela eta Amatiñok bultzatuta, Eibarko kronikak idazten hasi zen *Zeruko Argian* lehenengo eta *Argian* beranduago. Gero Euskadi Irratiko informatiboetan hasi zen lanean.



Odile Kruzeta

Irratian hasi zenetik gauzak asko aldatu direla dio. Orduko ametsa gaurko errealitate bihurtu da. Gaurko produktua sendoagoa da. "Hasieran itzulpen-lana egiten genuen nagusiki albistegietan. Gaur, berriz, sortu ditugu albisteak geure kasara jarraitzeko bideak". Informatiboen eskaintza indartu egin da. Hiru bloke nagusi sortu dira informazioaren

inguruan: goizeko 7.00etatik 9.00etara, 13.00etatik 14.30etara eta iluntzeko 20.00etan hasten dena.

Horrezaz gain, ordurako boletinak daude. Azkenaldi honetan, gainera, pertsonaien ahots originalak sartzen ari dira eta kulturari eta herrietako berriei beren txokoa egin zaie. Euskal Herriko gizarte euskaraz ez bizitzea da euskal irratigintzarako topatzen duen eragozpenik handienetakoa.

"Euskararen aldetik gizarte normalizatu baten itxura ematen dugu, baina ez da horrela". Kezka hau Euskararen Aholku Batzordean zabaltzen saiatzen da etengabe.

Egindako lanaren fruituak bistan daude: hiru euskaldunetatik batek Euskadi Irratia entzuten du.

Medikuntzarako euskara

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak, EHU eta Basurtoko Irakaskuntza Batzordearekin batera, *Medikuntzarako euskara* izeneko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urtarrilaren 12tik martxoaren 11ra bitartean emango da, Basurtoko Ospitalean.

Ikastaroaren helburua "euskal profesionalei beren eguneroko eginkizunetarako euskara erabilgarriago egitea da". Ikastaroaren zuzendariak Pello Salaburu eta Adelaida Umaran doktoreak dira. Bateragilea, Iñaki Ugarteburu.

Ikastaro honek 5 kredituko balioa du. Doktoregoko Mikrobiologia eta Immunologia programan eta baita ikastaroa baliokidetzeko egoki ikusten duten Osasun Zientzietako 3. zikloko programa guztietan ere. Guztira 51 orduko ikastaroa, 17 egunetan banatuta.

Eskoriatzako Irakasle Eskola lan izugarria egiten ari da *Ihardun* argitaletxearen bidez. Hizkuntza, Geografia eta Gizarte irakasten dutenei osagarri izango zaizkien bideo bildumak plazaratu ditu. Liburuei dagokienez *Lehen ttantak* eta *Lehen ipuinak* bildumak atera dituzte, Lehen hiztegia ahaztu barik. Berri gehiago nahi izanez gero, dei egin (943) 79 04 30 telefonora.

Informazioa eta euskara askotan uste baino sarriagotan datozkigu batera. Donostiako Euskararen Udal Patronatoak kanpaina bat antolatu du donostiarrei komunikabideetako euskararen presentzia norainokoa den adierazteko. Diptiko baten bidez, donostiarrei prentsa idatzian, irratian zein telebistan euskaraz duten eskaintzaren berri ematen zaie, orain baino gehiago erabiltzen saia daitezten.

Nafarroako Gobernuak 9.200.000 pezeta eman ditu ikasturte honetan irakaskuntza ez-unibertsitariar euskaraz sortu, itzuli edo egokitu behar diren testuliburuentzat. Helburua irakaskuntzaren beharretara egokituko diren ikasmaterialak sortzea da. Deialdi bi egin dira: irakasle-talde zein ikastetxeei, eurek egindako materialak itzultzeko; baita argitaletxeei, euskarazko material gehiago argitaratu dezaten.

Frantziako Gobernuak aldatu egin du Brevet azterketen legea. Hori dela eta, euskaraz ikasi duten ikasleek Historia-Geografia azterketa euskaraz egin ahal izango dute, horrela nahi izanez gero. Orain arte Frantziako gobernuak ez du inoiz azterketa ofizialetan frantsesa ez zen beste hizkuntzarik erabiltzea onartu. Seaska eta Ikas Bi elkarteek garrantzitsutzat jo dute erabakia.

Euskararen statusa ikertzeko bekak

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak euskararen statusaren alorrean azterlanak, tesinak, doktorego-tesiak etabar egiteko beka-egitarau berria atera zuen 1991n. Denetara 15 beka. Bi motatakoak izan ziren: A. 900.000 pezetako bost beka, lizentziadunentzat. B. 450.000 pezetako hamar beka, lizentziaturako azken bi urteetako ikasleentzat edo lizentziadunentzat. Euskara izan zen aztergai. Bekaldiak 8 hilabetekoak izan ziren. Hona hemen bekak jaso eta lanak entregatu dituztenen zerrenda:

A motako bekak:

- ♦ Inmaculada Fernández: *Kode aldaketa Durangoko gazteen hizkeran.*
- ♦ Jose Luis Gonzalez, Iñaki Garcia: *Euskara bigarren hizkuntza bezala jarrerak eta perzeptioak.*
- ♦ Kontxi Kerexeta: *Euskararen erabilera Eibar eta Elgoibarko gazte euskaldunetan.*

B motako bekak:

- ♦ Nekane Arratibel: *Motibazioa euskararen irakaskuntzan.*
- ♦ Jasone Cenoz: *Bizitasun etnolinguistikoa.*
- ♦ Ibon Idirin, Isabel Agirre, Ana Ensunza, Kontxesi Berrio-Otxoa: *Euskara ikasteko motibazioak.*
- ♦ Begoña Sarrionandia: *Kode alternantzia edo "code-switching". Hiztun euskaldunen arteko komunikazio estrategien tipologiarantz.*
- ♦ M. Arantzazu Etxabe: *Hizkuntza aukeraketa edo "code-switching" a euskaldunen artean.*
- ♦ Jose Ramon Garai: *Arratiako gazteen euskara-erabilera: higaduraren azterketa.*
- ♦ Leire Lopez, Ana Ortigosa, Eli Agirre, Marijo Gorostizu. *Gipuzkoako ikasleek batxilergotik unibertsitateara igarotzean egiten duten hezkuntzazko ereduaren aukeraketari buruzko ikerketa esperimental.*

Agerraldia

Liburu honetan M. Karmen Garmendiak Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 10. urtemuga zela eta Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean egin zuen agerraldiaren berri ematen da. "Agiriak" bildumaren 4. zenbakia da.



Manu Arrasate, 31, mungiarrak, euskal kazetariarentzat lagungarri izan daitekeen *Euskarazko albistegiatarako eskuliburua* plazaratu du, EITBren eskutik. Deustuan Euskal Filologia ikasi zuen. ETBn hiru urte, egin zituen zuzentzaile. Orain Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko itzultzailea da.

Catrin Hughes, irakasle galestarrak *Elebitasuna eta hizkuntz atzekimendua Aramaion, Araban* doktorego-tesia aurkeztu zuen iragan abuztuan Exeter-eko Unibertsitatean. Cardiff-eko Unibertsitatean gaztelania eta soziolinguistika irakasten ditu.

Matias Mujika, 32, itzultzaile iruñarrak Ferdinand Celineren *Gauaren muturrerainoko bidaia* liburua itzuli du. Igela argitaletxeak argitaratu du. Aurretiaz *Nafarroako euskaldunen mintzoa liburua* idatzi zuen. Nafarroako Gobernuako itzultzailea da.

EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

Galdezka

Eztabaidak

Guskarari eta elebitasunari buruz komunikabideetan etengabe pizten diren eztabaidak direla eta, zein da zure iritzia?

E bene-benetan uste dut inortxoren onerako ez dela egoera hau eta kalterako, berriz, gure Herriko elkarbizitzaren kalterako dela, denok ere beti ahoz maite eta zaindu nahi omen dugun Herri honentzako. Jokabide horiei azken eman behar diegula uste dut. Zenbaitentzat alderdien arteko borrokaren ondorio besterik ez da guzti hau, baina ondorioekin inork ez duela irabazten iruditzen zait. Herritar gehien-gehienentzat politikarien arteko liskarrak besterik ez dira eta, benetan diotsuet, egoera honi amaiera ematen saiatzeko uea iritsi dela uste dut. Behinola indarkeriari buruz eztabaidatzeari utzi genion bezala, guztion onerako, gure Herriko bi hizkuntzak alderdien arteko borrokatik kanpo uzteko garaia iritsi dela uste dut.

Garaia iritsi dela uste dut, gizarte elebidunaren aldeko garen guztiok, abertzalea izan ala ez, lortu diren erdiespenak guregana ditzagun. Denonak ditugu erdiespenok, gizartearenak berarenak baitira, administrazioak eskaintako baliabideak erabiltzen dituzten arabar, gipuzkoar eta bizkaitarrenak.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

"Geu Gasteiz" aldizkaria

Askoren harridurarako, Gasteiz izan da Euskal Herriko hiriburu guztien artean euskara hutsean informazio orokorreko aldizkaria ateratzeko gai izan den lehena. 92ko uztailean kaleratu zuten 0 zenbakiak izan zuten arrakasta ikusita, aurrera

egitea erabaki zuten eta dagoeneko beste bi zenbaki plazaratu dituzte.

Geu Gasteiz 5.000 harpide dunen artean doan banatzen den hilabete karia da. Oraingoz, publizitatea du diruiturri bakarra. Euskara bultzatzeaz batera, euskaraz bizi nahi duten gasteiztarrei beren hiriko gorabeherak, arazoak, gertaerak eta albisteak euskaraz ematea du helburu.

Euskera-Gasteiz. Geroa elkarrekin lantzen talde gasteiztarra da *Geu Gasteiz* aldizkariaren bultzatzaile. Informazio orokorreko aldizkari irekia egin nahi dute, ideologia eta politika mailan loturarik gabea. Euskal Herriko beste zenbait lekutan sortu diren herri-aldizkariaren dinamika euskaltzale beretsuetan koka daiteke.

Ongi etorri *Geu Gasteiz!*



✓ Kontutan hartzeko

- **Euskaltzaindiak** hileroko hilera Donostian egingo du otsailaren 26an. Hiztegi Batuko lehen hamar zerrendak aurkeztu eta onartuko dira.

- **IV. Gerriko Ikerlan-Sariketa** Goiherriko Euskal Eskolak, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak antolatua. Gaia: Goierri dagokion edozein zientzi alorretakoa. Euskarazko

lan originalak onartuko dira, apirilaren la baino lehen. Tfnoa.: (943) 16 02 82.

- **Asmoz ta jakitez** berripapera argitaratzen hasi da Eusko Ikaskuntza hamabostero. Euskaraz zein erdaraz jaso liteke, dohainik, posta bidez. Berri gehiagorako dei egin (943) 42 51 11 telefonora.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA